

Kaixo Eilaskide,

Urriak 30, Eibarren Mahai Negoziatzailean 13. artikulua aldatzeko helburuarekin bildu ginen.

Momentu honetan indarrean dugun Lan Hitzarmenean 13.artikulua ez da bat ere objetiboa, interpretazio desberdinak egin ahal direlako. Gaur eguneko beharretara eta egoerara moldatu beharra dago.

Bilera horretan adostasun batzuetara heldu baginen ere, hainbat gauza geratzen dira negoziatzeko. Hori dela eta, beste bilera bat egingo dugu abenduaren 4an.

Gure helburua, 13.artikulu hau ahalik eta objetiboena eta interpretazio bakarrekoa izatea da, denok berdina ulertzeko. Horregatik, aurrekoan bidali genizuen proposamena bultzatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu.

Besterik gabe, zuentzako interesgarria izango delakoan jaso agur bero bat. Edozein zalantza baduzue deitu lasai egoitzetara.

HAURRESKOLAK PUBLIKOAK, DOAKOAK ETA UNIBERTSALAK!!!

**IDENON ARTEAN LAN BALDINTZAK
HOBE DITZAGUN!**

